

**EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA ETA  
EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO EKITALDIA**

*Bilbo, egoitza, 2004-X-21*

## **EUSKALTZAINDIA – EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOAREKIN HITZARMENAREN SINATZEA**

*Bilbo, egoitza, 2004-X-21*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Jaun Andreak, egun on.

Euskaltzaindiaren egoitza honetan bilduak gara Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioarekin bien arteko *hitzarmen* baten sinatzeko. Ongi etorri beraz Iñaki Etxezarreta Ikastolen Konfederazioburuari.

Berrogeita bat urte iragan dira, 1963an hasi baitziren lehenbiziko ikastolak Gipuzkoan, frankismo garaian, Euskaltzaindia agertu zela orduan zuen laguntzeko. Alabaina argi zagoen Euskaltzaindiarentzat beharrezkoa zela ikastola, behar zirela ttipi-ttipitik hartu haurrak eta eraman gorago, eskolako hizkuntza bilakatzen zela euskara. Ez zen bakarrik euskara ikasten, euskaraz irakasten zen, gaiak zirela historia, zientziak, matematikak eta bertze... Denbora berean behar ziren sortu araberako liburuak, hori ere lan garrantzitsua izanez.

Egia da hasiak zirela ikastolak gerla aitzinean 1930eko hamarkadan. Hogeita hamar urte geroago bigarren urrats bat eman da eta hau iraunkorra. Gipuzkoatik hedatu da sarea Bizkaira, gero Nafarrora eta Arabara, Iparraldean ere sortu zela lehenbiziko ikastola 1969an Baionan, Argitxu Noblia eta aitama multzo baten nahiari esker. Dakizuen bezala Euskaltzaindiak erakutsi dio beti bere atxikimendua ikastolari. Adibide baten emaiteko *Herri Urratseko* bilkuran beti egon da norbait, gehienetan nihaur euskaltzainburu gisa eta ene ezin etorriaren adierazteko igorri ditut bertze euskaltzain batzuk, hala nola Piarres Charriton, Jean-Louis Davant edo Beñat Oihartzabal. Beraz hiru aldiz huts egin dut, baina han zegoen Euskaltzaindia.

Zinez *D* eredu beharrezkoa da euskararen osoki finkatzeko jakinki ez dela hizkuntza pasatzen belaunaldi batetarik bertzera lehen bezala. Alta beharrezkoa da familia, hartan baitatza lehenbiziko eskola, gero etortzen delarik alfabetatzea edozein hizkuntzatan gertatzen den bezala, eta hain zuzen garrantzi handikoa da haurrentzat alfabetatua izan dadien euskaraz. Urrats horrekin egiten da euskararen iraupena.

Zuen konfederazioak biltzen ditu Euskal Herriko zazpi hegaletan diren ikastolak, euskara delarik lokarria mugaz gainerik eta helburu berbera dutelarik, euskarazko hezkuntza finkatzea eta hedatzea. Etsenplu gisa ukan duzue Euskaltzaindia, Euskal Herriko zazpi eremuetarik biltzen dituela kideak. Euskalki guziak bilduz mugaz gainerik izan den Instituzioa da hastapenetik, hamabi euskaltzainetarik hiru Iparraldekoak zirela eta orain hogeita lauetarik zazpi. Erakustera emaiten du hizkuntza eta kulturak ez dutela mugarik ezagutzen.

Iparralde eta Hegoaldearen arteko loturak are eta gehiago sendotzen dira garai honetan adierazten dutelarik batasunaren nahia, kulturaren, erakaskuntzan, ikerketetan. Goazen aitzina, beraz, bilduz ahal guziak, hala nola biltzen ditugun egun sinatzen dugun hitzarmenarekin. Bost urterentzat izenpetzen dugu, baina pensatzen dut bost urteren buruan egungo hau luzatuko dela. Hala izan bedi luzaz, hori da ene ametsa. Bihotz-bihotzetik doaz ene zorionik hoberenak.

## **EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA**

*Bilbo, Euskaltzaindiaren egoiza,  
2004-X-21*

*Pedro Aranburu,  
Euskal Herriko Ikastolen  
Konfederazioko burua*

Egun on guztioi!

Euskararen lurralde osoan, Euskal Herriko zazpi lurraldetan, aspalditik lanean ari garen bi erakunde nagusien arteko *Hitzarmenaren* sinatze ekitaldi honek bi erakundeon artean hamarkadetan izan dugun harremanetan mugarri berria izan nahi du. Izan ere, Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren arteko lankidetzak aspaldikoa da, besteak beste, material sortuntza, garai batean ari ziren irakasleen euskararen ezagupena eta gaitasun maila frogatzeko asmoz Euskaltzaindiak sortutako D titulua, ikastolok antolatutako ekitaldietan Euskaltzaindikoko kideen esku hartzea, eta abarrak dira harreman horren froga argia; ahaztu gabe, 60ko hamarkadaren erdialdera, frankismo gorrian, Euskaltzaindiaren izenean eta babespean, Alfontso Irigoien, erakundearen orduko idazkariordeak egindako tramitazioari esker eta Julita Berrojalbiz maistraren zuzendaritzapean, Bilboko Elkano kalean kokatu zen Azkueren izena eraman zuen ikastola legalaren inaugurazioa; eta han hemen zabaldu izan diren ikastolen sorreran zein bilakaeran Euskaltzaindikoko kideek izan duten esku hartzea.

\* \* \*

Bestalde, 1968an, Oñatiko Arantzazun, lehenagotik zetorren ahaleginaren emaitza gisa eginiko batzarrean ezarri zituen Euskaltzaindiak euskara batua- ren oinarriak. Euskararen batasunean, batasun bide horren hedatzean zein indartzean, idazle nola baita pertsona helduen alfabetatzea ahalbidetu nahi zuen mugimenduarekin batera garrantzi erabakigarria izan zuten ikastolek, euskararen hedatze, indarberritze eta normalizatzeko prozesuan garrantzi handiko ekarpenak eginez. Testuinguru horretan sakonduz, ikastolok, badakigu jakin eskola dela hizkuntza baten normalizazio-prozesuaren zutabe eta eragilerik oinarritzkoenetakoa; alabaina, haren eginkizuna erlazioz gertatu dago euskal gizartearen beste sektore guztiekin, interakzio-prozesu batean, non eskola izango

baita euskalduntzearen bultzatzailea. Guk, ikastolok, euskara indarberritzeko ahaleaginean, auzolanean sinesten dugu, euskararen eremuan lanean ari diren erakundeen arteko lankidetzan. Era horretara, askotariko egitasmoei balioa erantsi eta efektu biderkatzailea eragin ahal zaiela uste osoa dugu, noranzko horretan urratsak egiten segitzeko zein Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren arteko harremanak areagotzeko izenpetu dugu *Hitzarmen* hau. Eskerrik asko.

## IKASTOLEN KONFEDERAZIOA ETA EUSKALTZAINDIA

*Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza, 2004-X-21*

*Andres Urrutia,  
Euskaltzaindiko **Jagon** Sailburua*

Eguerdi on, guztioi.

Euskaingintzan aspalditik diharduten bi erakundeen arteko hitzarmena dugu gaur jendaurreko hizpide. Izan ere, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak sinatu dute gaur euren arteko lankidetzeta-hitzarmena. Halako hitzarmenek, sarri askotan, asmo ugari eta proiektu asko barneratzen dituzte. Hitzarmen hau, oster, beste norabide batetik dator. Hitzetan sinisten badugu ere, ekintzetan nahi dugu hasi. Ekintza erkideak, jakina, bi erakundeok ditugun baliabideak elkarrekin erabiltzeko eta euskararen normalizazio-bidean batera jokatzeko.

Lehen esan legez, ibilbide luzeko erakundeak dira Euskaltzaindia eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa. Hortaz, ez litzateke gauza berria izango elkarrekin aritu nahi izatea. Bai, ordea, batak eta besteak sortu dituzten esparru eta eremuak, era banatuan baino, molde bateratsuan jartzeko gogo. Hartara, konpromisoa hartu da, hurrengo bost urteetan eta batzorde berezi batek zehaztuko duen lan-egitasmoaren bitartez, irakaskuntza- eta ikerketa-alorrean bakoitzak duen ondarea elkarrekin trukatzeko; jarduera, mintegi eta abarrekoetan baliokidetasun-markak ezartzeko; eta, oro har, argitalpenak gauzatzeko.

Bide beretik, eta Euskaltzaindiko Jagon sailburu naizen aldetik, esan behar berebiziko garrantzia duela gaurko honetan Jagonet zerbitzuaren emaitzak ikastolen eskuetan jartzeak, bai eta Euskaltzaindiaren arauak, gomendioak eta bestelako materialak ikastolen konfederazioaren bitartez zabaltzeak ere, konfederazioa eta Euskaltzaindia baitira Euskal Herri osoan lan egiten duten erakundeak.

Labur-zurrean, hitzarmen honek, euskaingintzaren ikuspegitik, egituraketa baten presentzia edo lekukotza dakar, hain zuzen ere, irakaskuntza eta hizkuntza uztartzen dituen lotura sendoa, bi arlo horietako erakunde esanguratsuek ondua eta moldatua.

## EUSKALTZAINDIA

*Bilbao, 2004-X-21*

*J. I. Etxezarreta,  
Euskal Herriko Ikastolen  
Konfederazioko zuzendaria*

Euskaltzainburu jauna,

*Jagon* sailburu jauna,

Ikastolen Konfederazioaren lehendakari jauna

eta bertan zareten gainerako guztioi:

Egun on.

Bistakoak ditugu Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak sinatu duten *Hitzarmenaren* ezaugarri ugari eta nabariak, hots, euskal lurralde guztiak jardun eremutzat hartzen duten bi erakundeen arteko elkar hartzea, Euskaltzaindiak ikastolen sorreran eta garapenean jokatu duen rolaren segidako lehen hitzarmen esplizitua izatea eta abar agerikoa.

Baina, aipatutakoen garrantzia gutxietsi gabe, hitzarmen honek badu sakoneko beste irakurketarik, euskarak une honetan eta hurrengo urteei begira dituen erronkei dagokiena, ondoko hiru ohar hauetan azpimarratu nahi duguna:

Lehena, euskarak behar duen hiztun iaio eta trebearekin loturik dago. Euskaldun kopurua handitzea, euskara ezagutzen duten herritarren estatistika lortzea lortu du euskarak eskoletan eta ikastoletan egin den lan eskerga eta miresgarriaren ondorioz. *Ekin eta jarrai* egin zen eta egiten dihardugu. *Jarrai eta ekin* dugu hurrengo urratsa, hau da, egindakoa errotzen eta areagotzen segitzearekin batera, euskararen erabilera aktiboa eta kalitatezkoa duten euskaldunak hedatzea.

Bigarrena, euskarak behar duen kultura propioa eta modernoarekin batera dator. Gure eskoletan eta ikastoletan euskara eta euskaraz ikastea eta irakastea erabat uztarturik egon izan dira euskal kulturaren edukiekin. Zer da, ordea, euskalduntzat bere burua duen edonork edo bere eskolaldia amaitu eta gero euskal gazteak Euskal Herriaz eta Munduaz gutxienez ezagutu behar di-

tuen gertaera eta kontzeptuak, egiten jakin behar dituen prozedurak, lortu behar dituen trebetasuna eta bereganatu behar dituen balioak eta jarrerak? Galdera honi hemen eta orain erantzun behar zaio, hori dugu ikerketa gai nagusia eta euskarak ezinbesteko hauspoa behar duena.

Hirugarrena, eta azkena, lankideok dakartzagun baliabideen indarraz ari da. Euskararen Ahaide Nagusia dugun Euskaltzaindiak bere autoritatea, bere ondarea eta bere ikerketa etengabea uztartuko ditu bere besoetako duen Ikastolen Konfederazioaren kudeaketa tresnarekin, hots, euskara eta euskal kultura hezkuntzaren bidez transmititu, garatu, adin eta gizarte ingurune anitzetara egokitu, didaktika, metodologia, ikas materialak eta prestakuntza ezin berri-tuagoak martxan jarri eta, azken finean, informazio eta komunikazio teknologia berrien sasoi honetan euskarak eta euskal kulturak beren garapenerako aro azkarra urra dezaten.

Horratx, bada, *Hitzarmenak* bere baitan duen balizko ibilbidea, egingarri bilakatzea eta burutzea sinatzaileon esku dagoena.